

## Ane eta Maddi Labaka, hainbat sari jaso dituzte bertso-munduan

Hiruna sari jaso zituzten pasa den asteburuan. /4-5



## Lasarte-Oriako airearen kalitatea aztergai

Lasarte-Oriako Udala eskualde mailan airearen kalitatearen lehen ikerketan parte hartzen ari da Andoain, Astigarraga eta Hernaniko Udalekin, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro sailarekin eta EHUko Kimika Fakultatearekin batera. Lasarte-Oriako Udalak herriko airearen kalitatea aztertu eta zehaztuko du. "Aurrerapauso kualitatibo bat suposatzen du azterketa hauei dagokienez, izan ere, udalerrri batzuek beste batzuegan duten eragina ikusteko aukera eskainiko baitu", Udaletik jakinarazi dutenez, "emaitzak ikusi ondoren, airearen egoera hobetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea eta ondorioz, lasarteoriarren bizi kalitatea hobetzea" da Udalaren helburua.

Ekimen honetan parte har-



tzen duten erakundeetako ordezkariak asteazkenean sinatu zuten elkarlanerako hitzarmena, Kimika Fakultatean, argazkian ikus daitekeenez.

EHUko Ingeniaritza Kimikako saila ari da azterketa egi-

ten, Eusko Jaurlaritzak utzitako neurketarako tresna ezberdinekin. Urtebetez egongo den kontrolerako kabina bat jarri dute Lasarte-Oria eta Andoain artean, Antxisu bailaran. Urtaoren arteko aldaketak

ikusteko aukera emango du honek.

Ikertzaileek jasoko dituzten laginak eta datuak aztertu ondoren, eskualdeko airearen kalitatea nolako den ezagutu ahal izango dugu. •

## Energia aurrezteko ekimena

Asteazkenean, aste berdea dela eta, kontsumo baxuko 750 bonbila eta energia aurrezteko 1500 eskuorri, jendeari aurrezteko trikimailuak azaltzeko, banatu zituzten merkatu inguruan. Gehienak doakoak ziren bonbila bila gerturatu ziren baina antolatzaileak gaiaren inguruko informazioa ematen saiatu ziren. Haurrentzako informazioa komiki moduan moldatu dute eta ostegunean banatu zen Lasarte-Oriako ikastetxeetan.

Ekimen honen helburua jendea egoeraz informatzea eta arazoaren aurrean irtenbideak zeintzuk diren ikastea da. •



### GIZARTEA | 3

## Ezker Abertzaleko zinegotziak balantzea egin dute

### GIZARTEA | 3

## Errausketaren inguruko marrazki erakusketa

### KIROLA | 6

## Mikel Berakoetxea, sega apustuko txapeldunarekin solasean

Eguerdietan ere hartzen dugu jendea, ordua aurrez eskatzu gero.

Proba ezazu gure laser zerbitzua

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

**MAITE**  
ESTETIKAKO ARETOA

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA

Indianoene 1 20013 Donostia

Tel: 943 272 587 e-posta: zurriola@kastola.net

www.barandiaranlizeoa.com

## 10 urte 10 kirol

Ekainak 7 (9:00 - 13:00)

Pio Baroja Kiroldegian

Haur, gazte eta helduentzat

dohainik

Tenis  
Eskalada  
Esgrima  
Badminton  
Spinning  
Patinak  
Fitness Balance  
Defentsa pertsonala  
Batuka  
Jolasak



**BELARTZA**  
**JATETXEA**  
**TABERNA**

Asteburutako menua 11€

Eguneko menua  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak

Larunbata gaua  
eta igandea  
ibital!

Belartza poligonoa  
Gurutzegi kalea 15, 4A Pabillioia  
20018 Donostia • Tel.: 943 376082

## Zorion-agurrak



**Markel**

Zorionak printzipito! bi muxu handi aitaxo, amatxo eta familiaren partetik



**Cristina**

Zorionak etxeko xopolina zure hamabigarraren urtebetetzearn familiaren partetik.



**Adrian eta Ana**

Zorionak bikote, muxu pila bat Sheila, Emilio eta famili guztiaren partetik. Beti bezain guapo jarraitu.



**Iker**

Zorionak famili guztiaren partetik. Muxu handi bat.



**Eneko**

Zorionak etxeko terre-motoari, zure guraso, Aitor eta aiton-amonen partetik.



**Asun eta Antonio**

Zorionak zuen 50. Urteurrenean, zuen seme-alaba eta biloben partetik.



**Aitor**

Gizonik gabe ederki egongo gera! Hala ere bueltatu, nor zirikatuta bestela! Zorionak!



**Aiora**

Zorionak 3. Urtebetetzearn eta muxu handi bat familiaren partetik



**Aimar**

Zorionak 4. Urtebetetzearn Oihane eta gurasoen partetik. Ondo pasa!



**Ane**

Zorionak zure 4. urtebetetzearn, gurasoen, Xabier eta Josuren partetik.

## Guardiak

**Ostrala, 6**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Larunbata, 7**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Igandea, 8**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Astelehena, 9**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Asteartea, 10**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Asteazkena, 11**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Osteguna, 12**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

## Telefonoak

**Osasuna / Larrialdia**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ..... 943 370000  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ..... 112

**Udala**

Erregistroa ..... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ..... 943376182  
Kulturetxea ..... 943376181  
Bakezko epaitegia . 943371629  
Zerbitzu Sozialak . 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ..... 943361605  
Udal euskaltegia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ..... 943 376180

**Jaiotzak**

Oier Blazquez Roman, maiatzaren 30ean.  
Clara Herrero de Pablo, maiatzaren 30ean.  
Aitor Blanco Gomez, maiatzaren 30ean.  
Gari Iraola Hernandez, maiatzaren 25ean.

**Heriotzak**

Marivi Echeveste Minchero, ekainaren 4an 56 urte zituela.  
Carmen Lizarraga Lizarraga, ekainaren 3an 82 urte zituela.  
Jesus Peres San Martin, maiatzaren 31n 77 urterekin.  
Luis Mujika Azkue, maiatzaren 29an 63 urte zituela.

## Azoka txikia

**Eskaintza inmobiliarioak**

• 60m karratuko lokal bat saldu edo alkatilaten da Andatza plazan, pisu bat egiteko egokia.  
Tel.: 943 363722(Cecilia Arbizu)

• Seme-alabarik gabeko bikote batek pisu bat bilatzen du alokairuan Lasarte-Orian.  
Tel.: 943 362205- 671 750393

• Lokala salgai (90m2). Iñigo de Loiola 12ean.Tel.: 635704811

• Etxebizitza salgai. Handia eta prestatua dago. Pablo Mutiozabal 2.ean.Tel.: 635704811

• Bi logetetako pisua salgai Urbarten.  
Tel.: 600 730512.

• Urbarten marrako garaje plaza bat alokatzen da.  
Tel.: 943 363524.

**Salerosketak**

• Kanpin-denda bat (karroa) salgai, Conver 13 modeloa. 2 logela eta abantzea.Tel.: 620 624243.

• Xbox360 kotsola eta 2 joku salgai. Berri-berria, erabili gabea.Tel.: 620 624243.

**Lan-eskaintzak**

• 5.mailako haur bati klase partikularrak euskaraz emateko norbait behar da.Tel: 610 285260

**Lan-eskariak**

• Neska bat eskaintzen da udan klase partikularrak emateko edo haurrak zaintzeko.  
Tel.: 647 142701.

• Neska bat eskaintzen da interna edo externa moduan garbiketa lanak egiteko, haurrak edo helduak zaintzeko, zerbitzatzeko. Esperientziarekin.  
Tel.: 628 657 617.

• Neska arduratsu batek etxeko lanak egiten eta haurrak zaintzen lan egingo luke.Tel.: 679 853342.

•Neska bat eskaintzen da etxeko garbiketa lanetan aritzeko. Esperientziduna eta informeduna.  
Tel.: 626 174129.

**Oharretarako:**

943 366858 • txintzarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4



## Gazte Informazioarako Udal Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki Kalea 18 • Tel.: 943 376181

**2008ko Zinemaldirako epaimahalkideak**

2008ko irailean ospatuko den Donostiako Nazioarteko Zinemaldirako gazte epaimahalkideak hautatu nahi dituzte 17 eta 21 urte bitarteko gazteen artean. Izena emateko epea ekainaren 15a arte luzatzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 943 481212 telefono zenbakira.

**Springsteeneko kontzertua**

Bruce Springsteen uztailearen 15ean Donostian ikusteko sarrera gabe geratu al zinen? Lasai, oraindik ere baduzu beste aukera bat! Gaur ekainaren 6a 600 sarrera gehiago jarri dituzte salgai. Sarrearen salneurria 75, 71 eta 61 euro bitartekoa izango da eta goizeko 10:00etatik egongo dira eskuragai

Tick Tack Ticket webgunean. Ez galdu aukera!

**EHZuzenean**

Euskal Herria Zuzenean Festibala 2008, ekainaren 27-28-29an ospatuko da Zuberoako Idauze Mendi herrian. Aurtengoan 13. edizioa izango da eta beti bezala musika talde ezberdinen aktuzioaz gain tailerrak, ikastaldiak, lehiaketak... egongo dira jendeak parte hartu dezan. Musika talde ezberdinen artean: Ojos de brujo sound system, Potato, Ruper Ordorika, Akerbeltz... bezalako taldeak izango dira entzungai. Guzti hau ondo ateratzeko azpiegitura muntatu eta desmuntatzeko jende beharra dute beraz animatuz gero Tel. 00 33 (0)5 59 70 20 08 edo 00 33 (0)5 59 29 60 58.

## Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

# Udaletxean 11 liberatu daudela salatu dute ezker abertzaleko zinegotziek

Alkate, zinegotzi eta konfiantzako karguek ia 700.000 euro jasoko dituzten bitartean, hezkuntzarentzat 9.000 euro, gazteriarentzat 6.000, edo auzoetako festatarako beste 6.000

TXINTXARRI

Lasarte-Orian Udal Gobernuaren funtzionatzeko modua eta urte osoan zehar izan duen jokabidea salatu zuten atzo Txanpi Baztarrিকা eta Itziar Iartza ezker abertzaleko zinegotziek. Batetik nabarmendu zuten alkate, bost zinegotzi eta beste bost konfiantzako karguek dituzten soldatak ez datozela herriaren errealitate ekonomikoarekin. Bestetik zerbitzu publikoen gehiegizko pribatizazio eta lur publikoak Udalaren finantzaketarako erabiltzen ari direla salatu zuten besteak beste.

Lasarte-Oriako Udalaren 2008ko aurrekontuen balorazioa eta Udal Gobernuaren lehen urtearen balantzea egin zuten atzo ezker abertzalearen Lasarte-Oriako Txanpi Baztarrিকা eta Itziar Iartza zinegotziek. Batetik herriko agintariak herritarren interesak defenditu beharrean alderdienak lehenesten dituztela salatu zuten eta adibide argia jarri. "Udal agintaldi honetan gure herrian alkatea eta beste bost zinegotzi liberatu daude, eta hau gutxi balitz, konfiantzako beste bost kargu izendatu dituzte. Guztira 11 liberatu. Pertsona guzti hauek alderdien zerbitzuan daude eta herritarrok ordaintzen diegu ("ilegalak" garenok ere bai)". Ondoren konparaketa bat egin zuten udal ordezkarien soldata eta zenbait jardueratarako Aurre-

kontuetan onartu diren kantitateekin. "Gazteria sailerako 6.000 euro, Hezkuntzarako 9.000 eta auzoetako festatarako 6.000, hiru adibide jarzearren. Alkatearen soldata 96.000 euro kostako zaigu aurreten, beste zinegotzi liberatuak 306.000 euro eta konfiantzako karguen ordainsariak 275.000 euro".

Horregatik eskatzen dute liberatu gutxiago izatea, soldata murriztagoarekin eta konfiantzako kargurik gabe. Ezker abertzaleko zinegotzien ustez "horretarako daude udal langileak".

## Pribatizazioak

Baztarrিকা eta larza kezkatuak azaldu ziren, bestalde, Udal zerbitzu publikoak pribatizatzeke hartu duen joerarekin. "Udal Gobernuak aurkeztu duen aurrekontu proposamenaren arabera 2008. urtean enpresa pribatuak 6,8 milioi euro jasoko dituzte zerbitzu publikoak emateagatik".

Ezker abertzaleko zinegotzien ustez, beharrezkoa denean ondo dago baina ez dago dena pribatizatu beharrik.

Bestalde, ez dute egokia ikusten lurzoruen salmenta Udal finantziazio iturri bezala erabiltzea. "Udalak bereak dituen lursailak saltzeari ekin dio berriro. Horiekin etxebizitza politika egoki bat egin ordez, kasu askotan iniziatiba pribatuaren esku uzten ditu diru truke. Aurreten udal lur sai-



Ezker Abertzaleko zinegotziak atzo emandako prentsurrekoan.

lak saltzeagatik 16.000.000 euro lortu dira, lurra erosteko inbertsioetan 1.000.000 euro besterik ez."

Kultura "demokratizatu" beharra dagoela ere eskatu dute Ezker abertzaleko ordezkariak. "Udalak bideak itxi dizkie herri mugimendutik datozten ekarpen guztiei eta aldiz, egitasmo eta ekimen kultural erraldoiak, eta kasu batzuetan pribatuak, antolatzeke (makrokontzertuak, esate baterako) udalaren babesa eta diru laguntzak jasotzen dituzte.

Egoera horren aurrean batek kultura kontseiluaren sorrera proposatzen dute, herrian ekitaldi kulturalak antolatzen eta bultzatzen dituzten kolektiboetako ordezkariak osatutako

kontseilua eta bestetik kalitatezko kultura eskaintzea ahalbidetzen duten jarduera eta ekipamenduak bultzatzeko proposamena luzatzen dute, hau da, aurrekontu orekatuak: diru gutxiago ekimen erraldoietan eta diru gehiago kultur eragileentzat eta herrian kultura sustatzen duten taldeentzat.

Ezker Abertzaleko ordezkariak atzo udaletxean eman zuten prentsurrekoan bestalde, banan banan udal batzordeen erreposoa egin zuten, oro har eztabaida gutxi dagoela nabarmenduz, eta gehienak minutu gutxitan bukatzen direla jakinaraziz.

Laburbilduz zera salatu zuten ezker abertzaleko zine-

gotziek, ez dutela beraienik ezer jakin nahi, eta bestalde, zalantzan jarri zuten "zenbait zinegotziren ahalmenak ardurak izateko, "titere hutsak dira".

Aurrera begira, lau gairi jarraipen zorrotza egingo diotela jakinarazi zute, Atez ateko zabor biltzea, eskola kontseiluaren eraketa, kultuko diru laguntzak eta euskara batzordean abenduan egin zituzten lau proposamenak, euskara, gazteria, kirola eta kultura arloak euskara hutsez lanean jartzea, 18 urtez azpikoek ekitaldi guztiak euskaraz izan daitezela, udal lan postu berrien perfilak hasieratik jartzea eta ordenantzak bete-araztea. •

## Errausketaren inguruko marrazki erakusketa

Lasarte-Oria Bizirik Errausketaren aurkako taldeak marrazki erakusketa bat antolatu du ekainaren 7rako, Okendo plazan. Errausketaren gaia "Erraustegia" da. Izan ere, ekimen honekin herriko gazteek gai honen inguruan duten iritzia, marrazkien bitartez, eza-gutaraztea da.

Esan bezala, erakusketa Okendo plazan jarriko dute ikusgai bihar, larunbata, goizean, 11:30etatik 14:00ak bitartean. Gerturatzen diren haur guztiak txokolata egongo da. Bakoitzak pota bana eraman beharko du. •



Sasoeta ikastetxeko haur batek, erakusketarako egin duen marrazkia.

# Ane eta Maddi Labaka Gipuzkoako bertso-txapeldun

Donostiako ikastetxetako saria ere jaso dute biek bertso paperen sailean

Hinua sari jaso dituzte aurreko asteburuan Ane eta Maddi Labakak. Batetik Donostiako ikastetxetako haurren artean egiten den literatur lehiaketako bertso paperen atalean lehen saria bakoitzak bere mailan. Gero larunbatean Iruran Gipuzkoako eskolarteko txapelketan bina txapel jaso zituzten, bertso idatzietan bat eta bapatekoan bestea. Biak Asteasuiko bertso eskolan ari dira Amaiagarre irakaslearekin.

## Jon ALTUNA

**A**nek Labakak 15 urte ditu, 16 bertzeko eta Maddi Labakak 14. DBHn daude, laugarren eta bigarren mailan hurrenez hurren. Zaletasuna etxetik datorriki, Joxe Kruz Labaka aita bertso eskolako parteida eta bertsozale amorratua baita.

Asteburuan galtzetan kabitu ezinik zen aita. Izan ere, sari bana jaso zituzten Donostiako bertso paper lehiaketan, ostrialean, eta lau sari, Gipuzkoako eskolartekoan, idatziz eta bapatean... Eta larunbat gauetan Ane Zabaleta aukozko festetan kantari. Gehitxo asteburu bakar baterako.

## Noiztik ari zarete bertsoetan?

**Ane:** Bera hasi zen ni baino lehenago.

**Maddi:** Bai ikastolan hasi nintzen, lagun batek esanda eta gero Aneri jarri zitzaizkion gogoan.

## Aspaldi izan al zen hori?

**A:** Ni duela lau urte hasi nintzen.

**M:** Ni bost

## Eta nolakoak izan ziren hasierak?

**A:** Aforgan ikasten genuen eta han Aforgan hasi behar nintzen Maddirekin bertso eskolan, baina beste zerbaitek ezukalako, ordutegiarengatik, inon nuen eta orduan aitaik (Joxe Kruz Labaka) Amaia (Agirre) ezagutzen zuenez, esan zidan bererakin hasteko Asteasun. Hasieran joan eta ez nuen inor ezagutzen eta isil isilik egoten nintzen. Orain lagunak egiten ditut. Maddi eta biak joaten gara orain Asteasura.

## Zaletasuna etxetik datorrikue ezta?

**M:** Bai aita da oso bertsozalea.

Asteburu hau egia esan berezia izan da biontzat. Kontatu nola joan den...

**A:** Iruran jokatu zen Gipuzkoako eskolarteko finala. Aurretik bagenekien idatzizkoak irabazita geneuzkela, Maddik bere kategorian, eta nik ere bai. Nik behintzat ez nuen ezergatik ere espero bapatekoa irabaztea.

**Jada sari bat bazenuekatala jakinda lasaiago joango zinaten noski...**

**M:** Hala esan ziguten txapel bat

bagenekiala eta lasai joateko.

**A:** Niretzat ez hainbeste, gauza bat gauza bat da eta bestea beste. Maddik bertso bakarra kantatu behar zuen, baina nik han egon behar nuen.

Aspaldian kantatu duzu zenbait lekutan horrek lagunduko du, ezta?

**A:** Bai baina txapelketa izateak urduri jartzen zaitu.

**Eta zu, Maddi, lasai sentitu al zinen?**

**M:** Bai ni bai.

**A:** Bai Maddi ausartagoa da

**Eta, txikien kasuan, bertso bakar batean erabakitzen al da txapela?**

**M:** Taldeka, hiru edo lauok taldeak dira eta bik lau oinek egin behar dute bertsoa eta beste bik gaiarekin. Hiru izanda batek errepikatuz egiten du baina gure taldean lau gineuz bana kantatu genuen.

**Irurakoak, Gipuzkoako txapelketa izan da, orain Euskal Herrikoira al zoazte?**

**A:** Ni bai, Maddi ez.

**M:** Txikien mailan bi bertso onenak bota dituztenak aukeratu dituzte eta handienean txapeladuna eta txapeldunordez.

**Eta gogoarekin al zoaz?**

**A:** Gogoarekin bai, baina ikurturte bukarako bidaian nago eta egun bat lehenago itzuli

*“ Bagenekien idatzizkoak irabazita geneuzkela, baina nik behintzat ez nuen espero bapatekoa irabaztea*

*“ Donostian urtero egiten da ikastetxteen artean literatur sariaketa, ipuin, bertso... Jada ez dakit zenbat urtean atera dugun. Ez du jende askok parte hartzen*

beharko dut Saloutik.

**Eta ostiralean Donostiako sariak jaso zenituzten...**

**A:** Donostian ikasten dugu eta urtero egiten da inguruko ikastetxteen artean literatur sariaketa, ipuin, bertso... banatuta eta jada ez dakit zenbat urtean

atera dugun. Ez du jende askok parte hartzen.

**Biok atera duzue saria aurtun?**

**M:** Bai azken hiru edo lau urtean atera dugu saria.

**Bertsoen atalean beti, ez duzue ipuinik edo aurkeztu?**

**A:** Nik behin edo behin aurkeztu dut gutunen bat, baina maila handia izaten da. Bertsoa, aldi, jende gutxi idazten du.

**Zenbat bertso paper lehiaketan atera duzue saria, baduzu sortaren bat bereziki gustoko duzuna...**

**A:** Ez bereziki.

**Eta, zuk, Maddi, idazten al dituzu bertso paperak?**

**M:** Ez dut oso gustuko, baina esaten badidate sariaketa batek dagoela edo bertsoak idatzi behar direla gustora egiten ditut. Ez dut, hala ere, bertso paper lehiaketa askotan parte hartu.

**Asteasun ari zerate...**

**A:** Bai eta ni Lasarten ere bai.

**M:** Asteasuok oso jatorrak dira. Lagun onak ditugu.

**Asteasun Amaia Agirre da bion irakaslea. Zer esango zenuke berataz...**

**A:** Ez dago hitzik ez da irakaslea bakarrik, eskolako bezalako behintzat ez, lagun bat da.

**Asko ikasten ari al zarete bererakin?**

**A:** Bai eta ez bakarrik bertsoetan.

**Eta helduen bertso eskolan, zer moduzko giroa dago?**

**A:** Ona. Lujo bat da Patxi Etxeberría edo Unai Muñoz bezalako bertsolariarekin aritzeko aukera.

**Eta zuk Maddi ba al duzu hasteko asmorik?**

**M:** Egia esan denbora ere asko ez daukat, oraingoz horrela Asteasun jarraituko dut.

**Beste zein zaletasun dituzte?**

**M:** Futbolearen jokatzera dut Ostarren, kadete mailan, aurtun txapeldunen fasean izan gara, musika eskolan trikitiza jotzen dut, bertso eskolara joaten naiz, azterketak, lagunak...

**Eta zuk, Ane?**

**A:** Nik bertso gain, pintura egiten dut. Koadroak margotzen ditut. Irakutzeaz aldizkaria ere aterazten dugu lagun batzuen artean.

**Egañarekin kantatu zenuen Barrenak Astinduz saioan, ezer berezirik sentitu zenuen?**

**A:** Kristona izan zen nererzat. Orain bideoa pasatu digute, eta ikusten duten bakoitzean, oraindik sinisterrak. Orduan bai nengola urduri.

**Ba ez ziru iduen, oso ondo aritu zinen... Beste norbaitek kantatuko al zenuke gustura?**

**A:** Askorekin, Amets Arzallus gustatzen zait asko. Bertsolari bakoitzaren zerbaite gustatzen zait.

**Zer adibidez?**

**A:** Muñozaren ahotsa. Xabi Payak keinuen bidez duen komunikatzeko gaitasuna...

**Eta zuk Maddi norekin kantatuko zenuke gustora. Miresten al duzu norbaite.**

**M:** Ez edozeinek. Kantatu nahi duen batekin.

**Anai arabek badira bertsoen munduan, Sarasua, Arzallus, Paya, Zuek bide berbera jarraituko duzue?**

**A:** Guk, gure bidetik. Ez dakigu, ikusiko da.

**Eta aitarekin kantatzen al duzue?**

**A:** Nik bertso eskolan, etxean ez. Ez daukagu ohiturarik. Maddi eta biok gure artean ere ez.

**M:** Nik oso gutxitan kantatu dut aitarekin. Batzutan txapelketaren bat badago esaten diogu punturen bat edo jartzeko.

**Entrenzatzen zaituzte berak, beraz...**

**M:** Zerbaite, baina gutxi.

**Korrika ere atera zarete Lasar-teko krosoan.**

**M:** Ia urtero. Gazteago nintzela atletismoa ere egiten nuen.

**Maratoian parte hartuko duzue?**

**A:** Nik abesti bateko letra bat egin dut. (Bizitzari mila esker). Eskatu zidaten eta egin nuen. Ez dakit nola geratu den, ez dut entzuen.

**Ze nabarmenduko zenuke zure bertsokeraz?**

**A:** Esaten didate Amaiak bezala kantatzen dudala.

**M:** Oso perfektionista da.

**Hori zer da ona edo txarra?**

**A:** Ona eta txarra.

**Zer akats ikusten dizkioz zure buruari?**

**A:** Ikastetxean eduki ohi dut Egunero azterketa. Eta hargatik apuntekin daukat burua beteta. Aprobazteko ez det izaten. Egin beharra txuleta.

Asteburutan dena ikasteko Sarri hartzen baitet beta Egia esan beti jartzen dut Hau egiteko arreta Dakidan dena erakusteko Une onena da eta. (bis)



**A:** Bat, hori eta tabernako saio batean, edo festa batean bada askatuko naiz, baina bestela txapelketa batean seguru egon arte ez dut botako, ez naiz hasiko.

**M:** Hamar buelta ematen dizkio.

**A:** Hasi naiz ikasten piskanaka baina lehen denbora pila bat egoten nintzen pentsatzen.

Beldurra ematen dit bertso erdian geratzeak. Bukatzen badet berdin zait, behintzat bukatu dit baina, geratzeak ematen dit beldurra eta orduan burua bueltaka,...

**Eta Maddik zer dauka ona?**

**A:** Kristoan ahotsa dauka. Ez du hainbeste nerbio izaten, nik

bezala.

**Ze ikasten ari zarete?**

**A:** Ni, laugarren DBHn eta hurrengo urtean letratateko jateko asmoa dut, grekera, latina, Aurrerago agian euskal filologia edo kazetaritza.

**M:** Ni bigarren DBHn nago eta ez dakit zer egingo dudan.

Horrela utzi genituen. Ane eta Maddi Labaka Lasar-teko bertsolari gaztettoak. Aspaldian bada Lasarte-Orian bertsoaren inguruan hainbat ekitaldi. Ane Labakak GRKO saioa du gaur bertan Zarautzen.



Maddi Labaka

Izan nahi nuke mundu guztia itsutzen duen izarra nere disdirak izan dezala horretarako indarra. Galdu ditut irriparra, Ta kiloak barra-barra, Baina basculak ez beza pasa Berrogeita bosten marra. Gauez pastilen beharra, Ta gosaritan sagarra; Azken aldan hori delako Irentsen dedan bakarra.

Gauegin ezin lo egin eta Ordu falta amesteko, Amets bat daukat; izan nahi nuke Modelo baten antzeko Gero mundua jateko Obsesioa tarteko, Amak ez du hitzik oso polita Nagoela esateko. Ispiluren menpeko, Zenbat gauza egiteko Nere zapaten takioa baino Finagoa izateko.

Mundua jan nahi izanagatik Egin dut hainbeste barau Ikusi nezan nere sabela Horizontea bezain lau, Ez bat, ez bi eta ez lau Hautsi ditut mila arau. Neska argala ederrago da Mitoak berean dirau. Berdin egun edota gau Penagarria degu hau; Nik mundua jan nahi nuke baina Agian berak jango nau.

Ane Labaka

Doimua: gure lurrean hedatua da Gaia: Mundua jan nahi dut.



**Kiroletako agenda**

**FUTBOLA**

**Igandea 7**

17:00etan, LOKE Texas Lasartearra-Billabona (I. Jubenila, igonera fasea) Michelinen.

**ARETO-FUTBOLA**

**XXII. MOSSO MEMORIALA**

MICHELINEN

**Larunbata, 7**

15:00etan, Ainhoa-Buenetxea  
15:50etan, Izkiña-Mostatxo  
16:40etan, Biyona-ISU lehiok  
17:30etan, Abend-(Ainhoa edo Buenetxea)

**Igandea, 8**

11:00etan, Manchester Kotxeras-Epel

**GIMNASTIKA**

**Larunbata 7**

09:00-14:00, LOKE- (Kadeteak neskak, txapeldunen fasea) Gasteiz.  
Gasteizko San Andres kiroldegian izango da eta LOKEtik Sara Renteria arituko da, aroarekin eta mazedekin.

**PALA TXAPELKETA**

**Astelehena 9**

18:30etan, Eneko Urdanpilleta, T. Urrezola-R. Felipe, A. Reyes  
19:15etan, Jon eta Mikel Begiristain-Asier Goikoetxea eta Aitor Azkonobieta.  
20:00etan, Iñaki eta Asier Iparragirre-I. Fernandez, J.A. Busto

**Asteartea 10**

18:30etan, I. Bardaji, I. Arluziaga-X. Otaegi, I. Uzkudun  
19:15etan, Jon eta Iñaki Lizaso-J.F. Solano eta Mikel Arroyo  
20:00etan, M. Iparragirre, J. Prieto-J. Fraile, F. Nieto

**Asteazkena 11**

18:30etan, E. Iradi, Ibon Azkonobieta-P. Castro, I. Castro  
19:15etan, C. Garcia, A. Etxebes-te-Ivan Ruiz eta Shanti Lorenzo  
20:00etan, Agustin Zubizarreta, Xabi Eugui-X. Arteaga, Beñat Esnaola

**Osteguna 12**

18:30etan, X. Etxezarreta, M. Bardaji-I. Muxika, M. Muñoz  
19:15etan, S. Martin, B. Odrizola-Xabier eta Joseba Sarasua  
20:00etan, Edu Jauregi, Fran Ariztimuno-Juan Luis Iregi, J.P. Artetxe

**Kiroletako oharrak**

**Ostadarreko entrenamenduetarako deialdia**

Hurrengo denboraldia prestatzeko Ostadarrek entrenamenduak antolatu ditu. Deialdietako datak ondorengoak: alebinentzat (1997) eta infantil txikientzat (1996) ekainaren 4 eta 6ean, 18:00etatik 19:00etara; ohorezko infantilak ekainaren 6ean eta 9an, 18:00etan entrenatuko du. Mutilen kadeteak (1993-1994) astelehena ekainaren 9an, 19:00etatik 20:00etara eta asteazkenean, ekainaren 11ean, 18:00etatik 19:00ak arte; jubenilak (1990/91/92) asteazkenean 11ean 19:00etatik 20:00etara eta ostira-lean 13an, 18:00etatik 19:00etara; nesken kadete taldeak (1993/94) ateartean eta ostegunean, ekainak 10 eta 12, 18:00etatik 19:00ak arte eta emakumezkoen erregionalak asteartean eta ostegunean, ekainak 10 eta 12, 19:00etatik 20:00etara. Entrenamendu guztiak Michelingo futbol zelaietan izango dira.

**Ostadar K.F dagoeneko egoitza berrian**

Ostadar Kirol Fundazioa egoitzaz aldatu da. Aurrerantzean Getokiko 25. zenbakian izango dira, Miche-

lingo kirol-gunetik gertu, Iparragirre zapata denda zen lokalean.

**Karate entrenamendua**

Senshu karate taldeak ekainaren 8an, igandean, goizeko 8:30etan, Ondarretan, Teniseko parean entrenamendua egingo du. Euria egingo balu, ekainaren 15era atzeratuko dute entrenamendua. Zazpi urtetik gorakoentzat zuzendua egongo da entrenamendu saio hori. Informazio gehiago nahi izanez gero, 635.205661 (Ane Pavo) telefono zenbakira deitu dezakezue.

**Plater tiraketa**

Igandean, ekainaren 8an, pater tiraketa antolatu dute Buruntz-Azpiko kirol bazkideentzako. Federazioaren kanpan, Arkalen, izango da, goizeko 9:00etatik aurrera. Izen-matea elkartean bertan egin behar da.

**Porrako saribanaketa**

Giroa amaitu da eta honekin batera Ostadarrek antolatzen duen porra. Gaur arratsaldean, 19:30etan Ilargi Tabernan banatuko dituzte sariak: lehen bi sailkatuenak eta zortzi urdaizpiko.

# Balorazio bikaina jaso du igandeko apustuak

Segako apustuak esperotakoa baino jende gehiago bildu zuen Kaxkarro inguruko zelaietan



Eguraldia lagun ez bazuten izan ere, giro ederra sortu zen segalarien inguruan.

**TXINTXARRI**

**Apustuan garaile atera zen Mikel Berakoetxearekin hitz egin dugu apustuean balorazioaren berri izateko. Oso pozik bukatu dute denek emaitzekin, esperotakoa baino hobeto joan zen dena eta zoragarritzat jo du Berakoetxeak igandeko sega apustua.**

Eguraldiak ez zuen asko lagundu hasieran baina azkenean atertu eta oso ondo bukatu zuten Mikel Berakoetxeak eta Andoni Mongek, "Futxi". Elkarteko bazkari batean suertatu zen apustua egitearen ideia, ez bata eta ez bestea ez dira segalariak, Futxi kale-kumea da eta Mikel baserrian jaioa bada ere herrian bizitakoa.

Gaztetatik ohitura pixka bat bazuten ere gogor entrenatu behar izan dute bi hila-betez frogatu honetarako. Alegria eta Zaldibi inguruetan aritu da Berakoetxea entrenamenduak egiten lagunen lurretan. Baina ez da lurrak soilik lortzea, jende askoren laguntza beharrezkoa da. Eguraldia ez da ona izan azkenaldian eta zailagoa da horrela prestatzen

aritzea, hala ere azkenean ohitu egin behar izan dira nahi eta nahi ez.

Lan handia behar da horrelako apustu bat prestatzeko, jende asko inplikatu behar da lurrak lortzeko eta denbora asko galdu arazten zaie lagunei, horregatik zaila

*“Horrelako frogatzen bat antolatzen jende askoren laguntza eta lana behar da horregatik zaila izango da beste bat egin ahal izatea”*

ikusten dute horrelako beste bat antolatzea.

**Talde lana**

Koadrilan egin dute lan, bakoitza zorroztaile batekin eta belarra jasotzen zuten beste laurekin ibili dira. Ordu batean aritu ziren bi taldeak

ia gelditu gabe eta gogorra izan dela aitortu digu Mikel. Belarraren egoera txarra zen euriaren eraginez etzana baitzegoen, baina azkenean uste baino hobeto ibili zen, entrenamenduetan baino hobeto. Biek oso ondo bukatu zuten eta errebantxa eskatzen dute batzuk baina gogorra da horrelako apustu bat antolatzea eskatzen duen lanagatik eta behar den laguntzagatik beraz ez dute beste bat espero denbora laburrean behintzat.

**Eguraldi kaxkarra baina giro polita**

Emitza zoragarria izan zela kontatu digu Berakoetxeak, bai giro aldetik eta baita lan aldetik ere, ziurrenik eguraldia hobea izan balitz jende gehiago bilduko zen baina aterki eta guzti jendea Txalagore taldeak girotutako Kaxkarro inguruetara gerturatu zen.

Berakoetxearen taldea atera zen garaile 2.238 kilo belar bilduta. Futxiren taldekoek 363 kilo gutxiago bildu zituzten, 1.875 kilo hain zuzen, baina esan bezala sortu zen giro politagatik denek pozik bukatu zuten eta bazkaria ospatzera joan ziren bukatutakoan. •

Egunero

**Erakusketa**

JOSE MANUEL MONGE margolariaren ikasleen lanak erakusketa aretoan ikusgai astelehenerdik ostiralera. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.

Ostirala, 6

**Hitzaldia**

ENERGIAREN EGOERA MUNDUAN, ohiko energia iturriak eta erabilerak, mundu mailako ingurumen efektuak eta tokian tokikoak...Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

**Antzerkia**

Lan eta Lan eta Emakumeen Zentro Zibikoko antzerki taldeek "El secreto bien guardado" eta "A mi sin alcohol, gracias" antzezlanak eskainiko dituzte. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

**Bakarrizketa**

KIKE BIGURIEN eskutik bakarrizketa. Paramount Comedy eta Club de la comediako kidea da Kike. Udaberri tabernan, 22:00etan.

**Bakarrizketa**

SEUEN GERRARI buruzko bakarrizketa. Naiban tabernan, 23:00etatik aurrera gutxi gorabehera, GAZTELANIAZ.

Osteguna, 12

**Hitzaldia**

TREBETASUN SOZIALEN inguruko hitzaldia KIUBen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan, GAZTELANIAZ.



*XX. Dantzari Txiki eguna igandean*

Erketzek antolatuta, udalaren laguntzarekin, XX. Dantzari Txiki eguna ospatuko da herrian. Zortzi taldeek hartuko dute parte: Makaia (Faltzes); Lurra (Urretxu); Rokamador (Zangotza); Korosti (Legazpi); Ereintza D. T. (Errenteria); Berritzasuna D.T. (Portugalete) eta herriko Landaberri ikastola eta Erketz Txiki.

Goizeko 11:00etatik 13:00ak arte herriko auzoetan zehar ibiliko dira haurrak. Arratsaldeko 17:30ean berriz, Okendo plazan dantzatuko dute.

Eguraldi txarra egingo balu, Michelingo frontoian egingo dute ekitaldia.

IGANDEAN, 10:30ETATIK AUERRERA  
GOIZEAN HERRIAN ZEHAR  
OKENDON 17:30EAN

**6. Antzerki Astea**

**Ostirala 6**

19:00etan, "MUNDU HOBEBERNAK" LH4.

22:30ean, "GARRAXI IXILAK" Helduen antzerki 1. taldea.

**Astelehena 9**

19:00etan, "ELURREZKO PANPINA" LH5, 2. taldea.

19:00etan, "AINGERUEN ETA DEABRUEN ISTORIO BAT" LH5, 1. taldea.

**Astearte 10**

18:00etan, "SUPER-UMEAK" LH6.

18:00etan, "ITSUAK" Zabale-tako gaztetxoak.

**Asteazkena 11**

19:00etan, "LANDABERRI IKASTOLAKO IRRATIA" DBH1-2, 1. taldea.

19:00etan, "GURASOAK" DBH1-2, 2. taldea.

**Osteguna 12**

19:00etan, "LOTSAGABEAK" DBH3-4.



**Oharrak**

**Sorgin dantzaren entseguak hasiko dira**

San Pedro jaietako Sorgin dantzako desfilea prestatzeko asmoz, ekainaren 3an hasita astearte eta ostegunero entsegu egingo dira Landaberri BHI ikastolan arratsaldeko 20:00etatik 21:00ak bitartean. Komenigarria da ekitaldian parte hartu nahi duzenok entseguetara joatea. Beraz, aurreko urteetan parte hartu baduzue ere, eta Sorgin dantza ongi dantzatzeko baduzue ere, antolatzaileek entseguetara joatea eskatu nahi dizuete.

**Zabaleta Auzolan**

Zabaleta auzoko festetan, Goiegi jatean lau pertsonentzako bazkariaren? Zozketa egin da eta zenbaki sariduna 5822 da. Saria jasotzeko epea hilabete.

**Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren oharra**

Gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten erakunde

eta elkarte guztiei jakinarazten die zabalik dagoela Gizarte Zerbitzuen Departamentu honek eman ohi dituen dirulaguntzak eskuratzeko eskariak aurkezteko epea. Horretarako eskariak Udaltzeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (9:00etatik 13:00etara bitartean), eskatutako agiriekin batera (Memoria, Gastuen Justifikazioa eta Jardueren Proposamena). Maiatzaren 5etik 30era aurkeztu daitezke.

**XXXI Mus Txapelketako finaleko afaria**

Larunbat honetan ekainaren 7an XXXI. Mus Txapelketako finaleko afaria izango da arratsaldeko 20:30ean. Afariatz gain sari banaketa izango da.

**Glotodidaktika ikastaroa**

Euskara irakaslea izan nahi dutenentzat, Antiguako AEK euskaltegian glotodidaktika ikastaroa antolatuta dute. Euskara irakasteko oinarriko prestakuntza emango da ekainaren

30etik uztailaren 24ra bitartean. Informazioa 943327172 telefonoan (Gipuzkoako AEK). Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologazioarako baldintzak bete gero, AEKren lan poltsan sartzeko aukera.

**Larrain dantza ikasteko saioak**

Herriko festak aitzaki hartuta, Xiberuko zenbait polka, eta Larrain dantza ikasteko saioak antolatuta dira. Edonork hartu dezake parte ekimen honetan. Entsaioak Erketzen lokalean egingo dira. Ekainak 6, 13, 20 eta 27an. Izen emateak Ttaku- nen (943 371448).

**Maria Auxiliadora elkartean irteera**

Ekainaren 15erako antolatuta du Lasarte-Oriako elkarte honek irteera. Lehenengo Segurara joango dira, gero Zumarragako Antigua ermita ikusiko dute eta ondoren Oñatin bisita gidatua. Aran-

tzazun bazkaldu eta gero, Arrikruz koba bisitatuko dute arratsaldean. Izena emateko bi telefono hauetara deitu: 943 363675 eta 943 360042.

**Usurbilgo Lanbide Eskola**

Gure eskolan aurrematrícula egiteko epea ekainaren 2tik 13ra irekita izango da.

**Kartel lehiaketa**

Durango Azokako 43. edizioa prestatzen hasi dira eta kartela aukeratzeko lehiaketa martxan dagoela gogorarazi dute antolatzaileek. Ekainaren 27an amaituko da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiago behar izan ezkerero www.durangokoazoka.com helbidean parte hartzeko oinarriak aurkituko dituzue.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behea

**Eskutitzak**

1935-2008

Alkoholiko Anonimoak (AA) osatzen dugun kide gehienok ez ginen jaio hau eratu zenean, eta gehienok ez ginen bizirik egongo bera jaio ez balitz. AAen historia, hasiera batean, asmatze eta akatsen segida izan zen, arrakasta eta porrotak, irrikak eta etsipenak... gaur egungo errealtate ederra gauzatu arte.

Hirurogeita hamahiru urteko existentzia. Urte horietan AAk izugarriko garapena izan du, mundu osoan zabaldu da; zabal-kunde honek argia eraman izan du eta oraindik ere milaka eta milaka gaixoei oraindik ere eramaten die, dena galdutzat zutenei: familia, lana, osasuna, estimua eta galdu daitekeen azkena: Itxaropena

Zer egiten du AAk? Zer du? Zer da? Beharrezkoa egiten du. Ezinbestekoa du eta pertsona konplikatuentzako programa xume bat ematen du. Eskaintzen duen programak edozein pertsonak onartu ditzaken funtsezko printzipioetan dago oinarrituta. Bere arrakasta ez da zerbait asmatzeagatik, baizik eta traumak, kontraesanak eta gainerako arazoak konpontzeko proposatutako printzipioak bateratzeagatik, eta hauek praktikara eramaten bizitzaren eta munduaren ikuspegi alai eta lasaiago bat izaten laguntzen dutelako.

Hirurogeita hamahiru urte eta gero, munduko herrialde guztietako bi milioi eta erdi pertsona baino gehiago alkoholiko aktibo izateaz sendatzen ari dira, familia eta lagunekin batera. Hau guztia, bi alkoholiko euren artean hitz egingez, arazoak elkarri kontatuz eta esperientziak elkartrukatuz edateko gogoia baretzen zela konturatu zirelako. Eta aurkikuntza hau ez zutelako eurentzat gorde.

Lerro hauek izan daitezela bi alkoholiko haien omena, eta urtez urte, hilez hil, astez aste AAen atea zabalik mantentzen dutenei, beraien esperientzia, indarra eta itxaropena konpartitzen dutenei ate horretara doazenei etsipenetik, hondamenditik eta bakardadetik ihesi.

Ez diezaiotela inoiz egiteari utzi.

ERREDAKZIOAN ITZULITA

**Gipuzkoako Alkoholiko Anonimoak**

# Antzerki eskolan buru belarri sartuta eta ezin atera

■ Txikienei eskolak ematez gain helduen bi taldeetan dugu antzezle Estitxu Garmendia

Garraxi Ixilak lanak izan duen arrakasta ia sinetsi ezin dutela daude Landaberriko helduen antzerki taldekoak. Estitxu Garmendiarekin hitz egin dugu. Bi taldeetan ibiltzen da antzerkian eta gainera eskolak ematen dizkie 1.mailako ikasleei. Denbora nondik ateratzen duen azaltzen saiatu da. Taldean dagoen jendeagatik ezin izan du talde bat utzi nahiz eta denboraz kaxkar ibili. Orain ekainean lana pilatzen zaito baina pozik dabil lan eta lan antzerkian murgilduta.

HELENA FERRERAS

## Noiz hasi zinen antzerkian?

Orain dela sei urte hasi ginen ikastolarekin, iharduerak euskaraz antolatu zituzten helduentzat eta umeak apuntatu genituean atzetik joan ginen gu. Horrela hasi nintzen, umeak apuntatzera joan nintzenez. Irailean aurkeztu zuten ikastolan antzerkia eta goazen ba! Asko pentsatu gabe izena eman nuen.

## Dantza garaikidea ere egin duzu, zenbat urtetan?

Gaztetan euskal dantzan ibiltzen nintzen, baina haurdun gelditu eta utzi egin nuen. Gero antzerkiarekin batera sortu zen dantza garaikideko talde bat eta han aritu nintzen. Aurten ez dut egin baina lau urtetan gutxi gora behera ibili naiz.

## Antzerkia nahiago duzu orduan?

Ez, baina antzerkian goizeko eta arratsaldeko taldeekin ibilia naiz eta bi taldeetako jendea ezagutzen nuen. Dantzako jendea eta antzerkian ibiltzen dena gutxi gora behera berdina da, eta azkenean sortzen den giro eta jendeagatik jotzen zara. Pena ematen zidan arratsaldeko taldea uztea, ordutegi aldetik ez zetorkidan ongi baina gaia ikusita ezin izan nuen ezetz esan. Irailean goizeko taldean

bakarrik gelditzen nintzela esatera joan nintzen baina arratsaldekoen gaia ikustean gelditzea erabaki nuen. Orduan aurten dantzarik ez egitea eta bi taldeekin antzerkian aritzea erabaki nuen.

## Betirako utzi duzu?

Ez, ez, momentuz bakarrik. Astean bi ordu oso erraz egiten dira, astelehenean dantza eta ostegunean antzerkiera joatea primeran dago. Baina gero ekaina aldera gehiago entsaiatu behar da eta ni agobiatu egiten naiz, ez dago dena egiteko denborarik hori da txarrena.

## Lehenengo urtean bi taldeetan eta dantzan ibili zinen baina?

Lehenengo urtean kurtsua arratsaldekoekin hasi nuen. Goizez eta gauez egiten nuen lan, beraz goizean ezin nuen antzerkiera joan, baina azkenean lana utzi eta libre geratu nintzen. Goizeko taldeari bisita egitera joan nintzen tarte horietako batean. Inprobisaketetan ari ziren, ez zen testua ikasteko obra bat, orduan hauekin berrengantxatu, nabilenekin jarraitu, eta dantzan ere segitu nuen. Antzerkia eta dantza gustatzen zaizkit baina azkenean garrantzitsuena jendea da, afariak, antzerkiak ikustera eta beste hainbat gauza egiten ditugu kuadrilakoekin egiten ez ditudanak.



## Aurten haurrei eskolak ematen dizkiezu. Lehenengo aldia al da klaseak ematen dituzula?

Bai, lehenengo udara osoa kanpoan egon nintzen eta kurtsua hasi baino lehen eguzkitan etzanda nengoela, Joxe Marik deitu zidan. Taldeak antolatzen ari ziren eta norbait falta zitzairen lehenengo mailan eskolak emateko. Nik bost aldiz esan nion ezetz. Ni inoiz ez naiz ez begirale ez andereño, ez ezer ere izan, umeekin neukan harreman bakarra nire umeekin zen. Ardura handia da eta hori banekien, urtean zehar jolasak egiten dira baina gero emaitzak atera behar dira, gurasoen aurrean eta irakasleen aurrean. Amaia, antzerki taldekoa, bigarren mailakoekin dago eta lagundu zidan. Eromena izan da baina oso ondo pasa dut.

## Aktore txikiak daude herrian?

Badaude, bai, oraindik oso txikiak dira baina nabaritzen da aldea batetik bestera.

Batzuk denbora pasatzera joaten dira baina beste batzuk benetan sinesten dute egiten dutena. Asko, ez dira geldik egoten, ematen du ez dutela arretarik jartzen baina gero harrituta uzten zaituzte. Oso ondo egon gara, ohean nagoenean datorren urtean zer egingo dugun pentsatzen dut.

## Udan deskantsatzea tokatuko zaizu?

Deskantsu totala. Datorren kurtsuan berriz baina zer egin erabaki behar dut. Dantza egin eta talde batean gelditzeko asmoa daukat, baina oraindik ez daukat argi. Esaten ditudanak eta gero gertatzen direnak askotan ez datoz bat.

## Aurtengo lana nahiko gogorra da, 36ko gerra. Zer moduz sentitu zineten Andoainen?

Hasierako ideia saharar emakumeen inguruko antzerkia egitea zen baina Joxerra honekin etorri eta egitea erabaki genuen. Gogorra da, liburua irakurtzea eta gero

bakoitzak bere etxekoa kontatzea. Lehenengo saioak izan ziren okerrenak, gero ohitu egiten zara, baina hasieran ea jendea negarrez utzi nahi genuen galdetzen nuen. Gero ostegunean Andoainen egin eta gero kristona izan zen, tentsioa handiarekin nongoen ostegunean bertan eta larunbat arratsalde arte ez nuen sentitu bukatutakoan sentitzen den lasaitasun hori.

Jendeak oso erantzun ona izan du Andoainen oso ondo egon zela esan ziguten. Hala ere, denek ez dute dena ulertu, ez da emozio bera sortzen jende heldua edo jende gaztearen artean, jende gazteak ez ditu gauza batzuk ulertuko historiako parte hori ez dutelako bizi baina galdetu egiten digute eta hori ondo dago. Oraindik Lasarte-Orian egin behar dugu, arrakasta tratatzen den gaiaren arabera dela badakigu, Andoaineko historia kontatu dugu baina azkenean herri guztietan gertatu da antzeko zerbait. •

euskarazko  
zure-azoka

berehala  
gatoz